

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

95

25/2025 DEKRETUA, abenduaren 29koa, lehendakariarena, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko zenbait kide aldatzeko dena.

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzko maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 5. artikulua lehendakariari esleitzen dio, instituzio, erakunde, entitate edo elkar-teek Kontseilurako hautatzen dituzten ordezkariak izendatzeko ahalmena, eta lege-testu bereko 7. artikulua ezartzen du Kontseilua osatzen duten pertsonen agintaldia lau urtekoa izango dela, berrautatzearen kalterik gabe.

Legeak agintzen du, baita ere, batzordean ordezkaritza duten erakunde, korporazio edo entitateek titular edo ordezko izendatu dituzten pertsonak aldatzeko aukera dutela. Izendatu berria kargu horretan arituko da ordezkaturako pertsonak Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean bete beharreko lau urteko epea igaro arte.

Lege horren 5. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta 7. artikuluekin lotuta, Unión General de Trabajadores de Euskadi / UGT Euskadi sindikatuak, lehendakariaren apirilaren 15eko 6/2025 Dekretuaren bidez izendatutako ordezko kide bat ordeztu ditu, eta haren ordezkartzan izendapen berri bat egitea erabaki du.

Horren ondorioz, hauxe

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.— Elena Carro Del Río andrea, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko ordezko kide izendatzea, Unión General de Trabajadores de Euskadi / UGT Euskadi sindikatuak hautatua, Alberto Elosúa Alvarado jaunaren ordezkari.

2. artikulua.— Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko abenduaren 29an.

Lehendakaria,
IMANOL PRADALES GIL.